

osasuna › Lore esentzien terapia

# Hipokondria edo desoreka energetikoa?



Jende asko obsesionatuta bizi da osasunarekin. Hori arazo bihur daiteke denboran luzatuz gero

EUSEBIO GONZALEZ

## Definizioa

Probak egin eta medikuak ezer ez duela esan arren, sintoma fisiko edo psikologikoak—benetakoa edo asmatutakoa—dituela dioten pertsonari esaten zaio hipokondriakoa. Beti dago kezkatuta osasunarekin, eta gaixotasun larri bat izateko beldur neurrigabea du. Ez dago hura azaltzeko arrazoi fisiko eta psikologikorik. Kopuru antzekoetan ematen da gizonetan eta emakumeetan.

Hauek dira sintoma nagusiak: gaixotasun larri bat izateko eten gabeko beldurra, sintomen interpretazio okerra eta aldatzen diren sintomak izatea. Arazoak 6 hilabete baino gehiago irauten du. Kasu askotan gaixoa gai da gehiegizko beldurra duela onartzeko, baina ezin du beldur hori gainditu. Beldur hori, gainera, benetakoa da. Medikua azterketa batek ondo dagoela baieztatu arren, ez da lasaituko. Medikua egoerak eragiten duen antsietatea arintzen saiatu beharko du.

Normalean arazoa kroniko bihurtzen da, horrenbestez, halako arazoan aurrean ezinbestekoa da arreta psikologikoa eta medikua.

## Arazoaren ikuspegi energetikoa

1956an Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) honela definitu zuen *osasun* hitza: «Ongizate fisiko, psikologiko eta soziala». Definizio horretan berritasun bat zegoen: *sozial* hitza. Alegia, egoera soziala pertsonaren ongizatearen baitan sartzen zuten. Askoren aburuz, ordea, definizio hori ez da guztiz egokia. Lore esentzien terapian gabilztzanontzat, adibidez, pertsona bakoitzaren maila energetiko, fisiko eta psikologikoaren orekaren arabera da osasun egoera. Medikuntza tradizionalak, aldiz, alde batera uzten du maila energetikoa. Fisikoa eta psikologikoa baino ez ditu kontuan hartzen. Kasu askotan, ordea, maila energetikoa aztertuta egiten zaie aurre gaixotasunei. Izan ere, bien arteko lotura da. Ondoren maila psikologikoan eta fisiko-



Badira osasunarekin neurrigabeen kezkatzen diren pertsonak. GARI GARAYALDE / ARCAZKI PRESS

an agertuko diren arazo asko maila energetikoan agertuko dira aurrea. Hori dela eta, ezinbestekoa da definizio guztiak batean biltzea.

Gainera, hipokondria gisako gaixotasun batek garbi erakusten du lore esentzien terapian gabilztzanon definizioaren oinarria. Izan ere, alde batetik, hipokondria duen pertsona bat obsesionatuta dago osasunarekin, gaixotasun larri bat izatearekin; baina, bestetik, badira somatizatu bitarte medikuntza tradizionalak diagnostikatzen ez dituen sintoma fisiko eta psikologikoak. Maila energetikoan, ordea, hori ikusten da. Akupuntura meridianoak neurtuta 10 minutuan jakiten da gaixotaren osasun egoera. Hala, berehala jartzen da martxan tratamendua: akupuntura, homeopatia, lore esentzien terapia... Maila energetikoak hobera egin ahala, sintoma fisiko eta psikologikoak hobera egingo dute.

## Lore esentziak

Hipokondriaren kasuan lau dira gehien erabiltzen diren Bachen lore esentziak. Dena den, aldezturritik komeni da gaixotaren akupuntura meridianoak neurtu eta arazoa non dagoen jakitea. Hori oso garrantzitsua da tratamendua bideratzeko. Dena den, hauek dira aipatutako lore esentziak: mimuloa (*mimulus guttatus*), sagarrondo basatia (*mamulus sylvestris*), zerarifera (*prunus cerasifera*) eta heliantemoa (*helianthemum nummularium*).

## Kasu klinikoa

Gizona, 45 urte. Antsietatea maila altua du. Duela 3 urte digestio sisteman ondoez arraro bat izan zuen, eta orduan hasi ziren arazoak. Sen-

**Akupuntura meridianoak neurtuta 10 minutuan jakiten da gaixotaren osasun egoera zein den**

dagilearengana joan, eta proba mordo egin ondoren ez zioten ezer antzeman. Dena urduki egoteagatik zen. Horrek are gehiago kezkatu zuen, ondoezarekin jarraitzen baitzuen. Medikuek atzeman ez zioten gaixotasun larria zuela pentsatzen hasi zen. Kontu hori burutik kendu ezin da ibili zen. Azkenean psikiatrarengana joatea aholkatu zioten. Diagnostikoa garbi izan zen: hipokondria. Depresioaren eta antsietatearen kontrako botikak agindu zizkieten.

6 hilabetez botikak hartzen ibili zen, eta antsietatea gutxitu arren digestio arazoez horte jarraitzen zuten. Naturista batengana jotzea erabaki zuen, baina ez zuen hobera egin.

Azkenean, lagun batek aholkatuta, lore esentzien terapiarekin probatzea erabaki zuen. Haren akupuntura puntuen azterketa magnetikoa egin, eta heste lodian arazoren bat izan dezakeela ikusi zen. Hala, hipokondriari eta antsie-

tateari aurre egiteko mimuloa, heliantemoa eta zerarifera hartu behar zituen; heste lodiko arazorako, berriz, ziapea (*mustard*). 15 egunen ostean kontsultara itzuli, eta hobeto zegoela zion, animatuagoa. Tratamendua egokitu bitartean, 15 egunero itzuli zen kontsultara. Urtebeteren buruan erabat osatuta zegoen.

## Eusebio Gonzalez Martin

**PSIKOLOGOA  
Lore Esentziak  
BACH dk.**



## OLARAN ETXEA

Herriko Plaza, 3  
2. solairua, A-6  
20577 Antzuola  
Gipuzkoa

Herminio Madinabeitia, 6  
01006 - GASTEIZ  
www.zohargi.org

☎ 605.76.93.46  
eusebiogm@euskalnet.net